

RUBEN COLLIO ekintzaile maputxea

“Macarena lurraren defentsan borroka egiteagatik hil duten lehenengo emakume maputxea da”



Amaia Lekunberri Ansola
@amaialekunberri

Ruben Collio maputxeak (Santiago, Txile, 1976) itsasoa zeharkatu du Macarena Valdés ekintzailearen hilketaz jakinarazi eta nazioartean babesa lortzeko, salatzen duenez Txileko Estatuaren baitan maputxeentzat justiziarik ez baitago. 32 urte zituela hil zuten Valdés Tranguileko bere etxean, beraien bizilekuan zentral elektrikoa eraiki duen RP Global enpresa transnazional austriarraren auto batetik mehatxatuak izan eta egun batera. Macarenaren bikotekidea zen Ruben Collio, eta justizia bila dihardu.

Macarenaren hilketa ez da maputxe herriaren kontrako lehen eraso. Aspalditik datorren gatazka da. Zertan datza?

Txileko Estatuak Herri Maputxearekin duen gatazka da, ez maputxeona. Gatazka ekonomikoa da, behin independentzia lortuta Txileko Estatuari sortzen zaion anbiziotik datorrena. 140 urte dituen gatazka da.

Araukaniako okupazioan, jaioberria zen Txileko Estatuak beretzat hartu zuen maputxe herriaren Biobio eskualdeko hegoaldearen aberastasun handia, lurrak inbadituz. Sinatua zuen Tapihueko ituna haustea erabaki zuen, zeinetan Txileko Estatuak Nazio Maputxea nazio libre eta burujabe gisa onartzen duen, eta senidetutako nazio bezala haztea proposatu. Herri Maputxeak abantaila gehiegi zituela eta lur emankorregian bizi zela ondorioztatuta, lurrok okupatzea erabaki zuten. Helburu horrekin intentsitate baxuko guda bati hasiera eman zioten. Inbaditu eta hiltzen gaituzte. Gaur egunean, gudak hortxe dirau.

Pinocheten diktaduraren ostean, baliabide naturalen erauzketa masiboan ardatu da Txileko ekonomia, eta horretan jarduten duten enpresek estatuaren babesba dute. Egoera hori izanik, enpresok parean jartzen zaien edozeinen aurrean indarrez egiten dute aurrera.

Macarena bakarrik ez, jende andana hil dute testuinguru berberean. Gertatzen dena zera da, Macarena luraren defentsan borroka egiteagatik hil duten lehenengo emakume maputxea dela. Gizonezkoak kriminalizatu eta hil badituzte ere, ohartu dira herri maputxearen indarra emakumeengan dagoela, orain artean horregatik eutsi diotela gatazkari maputxeek. Hala bada, estrategia aldatu dute. Zorritzarrez, estrategia aldaketa hori gurekin egin dute, eta nire bikote-kidea hil.

RP Global enpresako auto bat mehatxu egitera joan zitzaizuen eta biharamunean, 2016ko abuztuaren 22an, Macarena etxeko sabaitik urkatuta, hilda agertu zen. Suizidiotzat jo zuten heriotza, baina Macarena ezagutzen zenutenoi zaila zitzaizuen bere buruaz beste egin izana sinestea.

Begira, *La Negrak* –berak hala deitzen dio Macarenari– energia ikaragarria zeukan. Hainbesteko energia daukan pertsona batek bere buruaz beste egin

dezakeela pentsatzea zaila da. Hil zuten egunean osasun zentrorra doan autobusa hartzekoa zen. Aurretik, haurra bainatu, arropaz eta pixoihalez aldatu eta bazkaria egin zuen. Bere buruaz beste egitea pentsatzen ari den zein pertsonak egiten dio bazkaria bere familiarri. Etxera heldu nintzenezan janaria eta bere poltsa, semearen mediku txartelarekin batera, mahai gainean ziren. Hil nahi duen pertsona batek ez du etorkizunera begirako planik egiten. Bera emakume zorionsua zen, ez zuen bere buruaz beste egiteko asmorik.

“Ohartu dira herri maputxearen indarra emakumeengan dagoela, orain artean horregatik eutsi diotela gatazkari maputxeek”

“Azterketak Macarena urkatu zutenerako hilda zegoela frogatu zuen”

“Txileko Estatuak Herri Maputxearekin duen gatazka da, ez maputxeona”

Macarena hilda agertu eta biharamunean, enpresako langileak zentral hidroelektrikoaren kableatua instalatu asmoz azaldu ziren.

Abuztuaren 23an kableak jartzen ari zirela esanez deitu zidaten, eta segidan dei egin nuen nik herrizaintzara, kableak jarriko ez zituztela esanez. Konpromiso politikoa hartua zeukatela adierazi nien, enpresa legez kanpoko jardunean ari zela frogatu eta salaketa jarria geneukalako. Herrizaintzatik ezin zutela ezer egin erantzun zidaten, eta nik hurrengo adierazi nien: “Bart nire bikote-kidea hil zuten eta gaur kableatuaren kontra dagoen maputxe asko ari dira gerturazten. Hemen zerbait larriagoa gerta dai-

teke. Erretiratzeko eskatu edo hildako gehiago izan dezakegu”. Herrizaintzak, arazoaren muntaz jabetuta, karabine-roi dei egin zien alde egiteko eskatuz, eta poliziak eta teknikariak kableatua egin barik joan ziren. Baina irailaren 9an nire kontrako prozesu bat hasi zuten, kamioi bati su emango niola mehatxu egin nuela aitzakia gisa erabiliz. Horretaz baliatu ziren urrian Poliziaren indar bereziekin –Polizia paramilitarra– kable instalazioa indarrez egiteko.

Gertakariok Macarenaren heriotzarekin lotura zutenaren susmoa indarra hartuz joan zen, eta gorpua hobitik ateratzea erabaki zenuten, baldintza egokietan heriotza zerk eragin zuen aztertze.

2016ko urrian, guztia elkarloturik dagoela ulertuta, Macarenaren heriotzagatik kereila kriminala jarri genuen. Kereilak bi urteko epea zeukan ikertua izateko, baina 2017ko martxoan ikerketa itxi egingo zutela esanez dei egin ziguten. Egun horretan manifestaziora deitu genuen jendeak lagunduta auzitegira joateko, eta ikerketa zabalik mantentzea lortu genuen, baldintza batekin: gorpua hobitik ateratzeko perituak geuk ordaintzea. Dirua biltzeari ekin genion, eta bost hilabeteren buruan peritu bat ordaintzeko beste geneukan. 2017ko abuztuaren 9an, perituaren informea aurkeztera gindoazela, berriz aurkitu genuen ikerketa itxita. Bi urteko epea zeukan ikerketa bi aldiz itxi zuten urtebete igaro aurretik.

Fiskaltza erregionalera jo genuen orduan. Lehenengo autopsia ofiziala gaizki egin zela frogatzen zuen perituaren informea hain zen sendoa, ezen ikerketa zabaldu behar izan zuten berriz. Irailaren 25ean ezarri zen gorpua hilobitik ateratzeko data, eta eragozpenekin bada ere hala egin zen. Urriaren 30ean lortu zen autopsia egitea, eta laginaren ale bi gorde genituen: bata Estatuako auzitegi-medikuek aztertzeke, eta bestea laborategi pribatu batera eramateko. Laborategi pribatuan egindako azterketaren emaitza 2018ko urtarrilean jaso genuen, eta horrek Macarena urkatu zutenerako hilda zegoela frogatu zuen. Zintzilikatu egin zuten, hildako bat ezin baita bere kabuz zintzilikatu. Beraz norbaitek jarri zuen hor, norbait han zen hiltzenezan. Hilketa izan zen.

Orduan ikerketa aldatzea eskatu genuen, suizidioa baino hilketa kalifikatu



AGENCIA DE NOTICIAS REDACCIÓN

bat iker zezaten. Kalifikatua, ez delako hilketa sinplea, lehenengo hil egin baitzuten eta ondoren hilketa estaltzen saiatu, auzitegi-medikuari dirua eskainiz lehen autopsia faltsua sinatzeko. Fiskaltzak ikerketaren norabidea ezin zuela aldatu erantzun zigun, horretarako froga nahikorik ez zegoela argudiatuz, nahiz eta guk urtarrilean adituaren txostena aurkeztu. Hori gutxi balitz, auzitegi-medikuek aztertu beharreko bigarren autopsiako lagina laborategira bidali aurretik, gure perituaeren prozeduraren gaineko analisi kritiko bat egiteko eskatu zion mediku bati, gure peritua zalantzan jarritz. Ez dute nahi beraien eskutan dagoen autopsiaren lagina laborategira eraman, jakin badakitelako guk jasotako emaitza berbera jasoko dutela, lagina laborategira eramanez gero Macarena hil egin zutela onartu eta gertakaria ikeritu beharko dutela. Hilketa ezkutatzeko saiatu zirenak agerian geratuko liratekeelako. Lehen autopsia egin zuen medikua kasu, zeinak aurretik ere sinatu

Macarena Valdés oroitu eta RP Global enpresa transnazonalak hil zuela salatzen duen murala.

zituena beste bi autopsia faltsu, hilketa zena suizidiotzat joz.

Epaiketa zabalik dago momentu honetan, baina irregulartasun guzti hauekin. Horregatik erabaki dugu nazioarteko babesaren bila ateratzea.

Pinocheten diktadurak iraun bitartean maputxe ugari lurraldetik alde egin zuen, baita izenez aldatu ere, bortxaren eta baztertuak izaten jarraitzearen beldur. Macarena eta zu Santiagoren bizi zineten, eta hiria utzi eta komunitate maputxera bizitzera joatea erabaki zenuten. Deserrotu zen belaunaldi haren ondorengo berriz erroak botatzeko bidea hartzen dabil?

Gero eta gazte maputxe gehiagok erabakitzen du lur maputxeetara bueltatzea, maputxe bezala bizitzera itzultzea. Lurrak deitu egiten dizu, saihetsezina den zerbaite da, guk ez genuen nahi zemen-

tuzko oihanean bizi, hiriak intoxikatuz gintuen. Jendea estresatuta bizi da, estututa, alde batetik bestera korrika, oso haserre. Izatez ez dira bizi, biziraun egiten dute hirian, dirua lortzeko saia-keran. Zeren dena neurtzen da diruaren arabera, eta zenbat eta diru gehiago izan orduan eta erosteko ahalmen handiagoa daukazu, eta zenbat eta gehiago erosi zoriontsuagoa eta arrakastatsua- goa zara. Jendeak urteko 365 egunetatik 350 lanean igarotzen ditu, esklabuak bezala, pareta bati begira, ordenagailuko pantailara iltzaturik, gaizki tratatzen dituen nagusi bat jasaten. Urteko 350 egun horrela lanean, dirua batu eta hamabost egunez zoriontsu izan ahal izateko. Eta hamabost egun horietan gu urteko 365 egunez bizi garen tokira etortzea erabakitzen dute. Hala bada, gu oporretan bizi ginen, horrela ulertzen genuen. Bizi garen tokira jendea arnasa hartzea etortzen da, zoriontsu izatera. Horregatik gure lau semeak, Macarena eta seiok zoriontsu bizi ginen. Baina bizitza zikintzera etorri zitzaizkigun. ■